

la perfumería

2022KO UDA

de Mercadona



Tratua EGUZKIAREKIN

BELTZARAN-KOLORE POLIT, OSASUNTSU ETA
IRAUNKORRA LORTZEKO BEHAR DUZUN GUZTIA



Betileetarako bilduma berezia



Betileetarako seruma

Egunez eta gauez erabiltzeko, maskararen aurretik, edo bakarrik.

Maskara

Areagotu begirada betile luze, sendo eta handiagoekin.

Panoramic Maskara

Betileak altxatzen eta kizkurtzen laguntzen duen eskuila du. Bolumen panoramikoa unean bertan.

AURKIBIDEA

CURLY METODOA



MONOÏ ELIXIR FLEUR



EGUZKI-BABESA



BEAUTY MOMENT



GLOSS UKITUA



3,2,1... AGUR ILEARI!



Argitaratzailea: MERCADONA, SA
Fuente del Jarro industrialdea.
C/ Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea. Debebatuta dago saltzea edo merkaturatzea. ©© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



ILE KIZKURRA



KIZKURRALDI berria

**Badakizu nola lortu
kizkur leun eta definituak?**

Ezagutu Curl Perfect, eta erakutsi denei zure ile kizkur ederra:
malgua, mugimenduduna eta harrotu gabea

Zer da *Curly* Metodoa?

Ile uhindu eta kizkurra zaintzeko diseinatutako jarraibide batzuk dira, ile-mota hori lehorragoa izaten baita bere egitura dela eta. Metodo honetarako egokiak diren produktuak bereziki formulatuta daude mota horretako ilearen hidratazio- eta nutrizio-beharrak asetzeko. *Curly* metodoan, ile kizkurra zapaltzen, lehortzen eta trinkotzen duten produktuak saihesten dira, eta, haien ordez, ile kizkurraren hidratazioa eta distira naturala areagotzen dituztenak erabiltzen dira.



Curl Perfect lerroak sarri erabiltzeko 5 produktu ditu, batzuk higienekoak eta beste batzuk ilea finkatzekoak:

1. XANPUA

2. UREZ KENTZEKO MASKARA

3. ILEAN KENDU GABE UZTEKO MASKARA

4. KIZKURRAK AKTIBATZEKO GELA

5. SERUMA

CURL PERFECT, URRATSEZ URRATS

1 Xanpua

Sulfatorik gabea, ilea leuntasunez garbitzeko. Koko-olioarekin aberastutako formulari esker, behar duen hidratazioa ematen dio ileari, eta kizkurra areagotzen eta harrotzea kontrolatzen du.



NOLA ERABILI

Gogoratu garrantzitsua dela hatz-mamiekin masaje leun bat ematea burua garbitzen duzunean. Hala, sakon garbitzen da, buru-azaleko odol-zirkulazioa aktibatzen da, eta ilea ondo haztea lortzen da.

2 Maskara

Koko-olioarekin eta karitegurinarekin bereziki formulatutako maskara intentsiboa, kizkurrari nutrizioa, malgutasuna eta definizioa ematen diona.



NOLA ERABILI

A AUKERA

- ✓ Ilea garbitu eta gehiegizko ura kendu ondoren, zabaldu maskara ilearen erdialdetik hasita punta aldera. Eman masaje arin bat produktua ongi barneratzeko, eta utzi 2-3 minutuz eragiten.

B AUKERA

- ✓ Hidratazio sakona lortzeko, maskara ile lehor eta alde zurratik orraztuan ematea aholkatzen da. Zabaldu maskara ilearen erdialdetik puntetara, bildu toalla batekin, eta utzi ordu-erdiz.
- ✓ Aukera batean nahiz bestean, kendu produktua ur ugariarekin.



3 Ilean kendu gabe uzteko maskara

Ilean kendu gabe uzteko maskara, koko-olioz, aloe veraz eta liho-estraktuz egina, kizkurra hidratatzen eta areagotzen duena, trinkotu gabe; maneiagarri eta erraz orrazteko moduan uzten du ilea.

NOLA ERABILI

- ✓ Ilea garbitu ondoren eman, oraindik heze duzula, erdialdean hasi eta punta aldera. **Ez garbitu urarekin.**
- ✓ Ilea garbitzen ez duzun egunetan, kizkurra berpizteko eta hidratatzeko erabil dezakezu. Eman aurretik, hezetu ilea.



4 Kizkurrak aktibatzeke gela

Kizkurrak finkatzeko gela, ile uhindu eta kizkurretarako bereziki diseinatua. Koko-olioz, aloe veraz, landare-proteinaz eta liho-estraktuz egina, hidratazioa eta finkatze malgua emateko ileari.

Kizkur malguak, mugimendudunak eta harrotu gabeak lortuko dituzu.

NOLA ERABILI

- ✓ Eman gela esku-ahurrean, eta zabaldu modu uniformearen ile hezearen gainean.
- ✓ Ez garbitu urarekin.
- ✓ Ondoren moldatu ilea hatzekin, eta utzi airean lehortzen edo lehortu difusorearekin.





5 Seruma

Olio-testurako seruma, egunero erabiltzekoa, kokoz, ahuakatez, makadamiaz eta arganez egina.

Ohiz kanpoko distira ematen dio ileari, puntak zigilatzen ditu eta harrotzea eragozten du.

NOLA ERABILI

- ✓ Bota tanta batzuk esku-ahurrean, eta zabaldu ile gainean. Ilea heze edo lehor eduki dezakezu.
- ✓ Banatu produktua uniformeki, ilearen erdialdetik puntetara.
- ✓ Ez garbitu urarekin, eta orraztu ohiko moduan.





DEO
BODY SPRAY

ELIXIR
FLEUR DE

MONOÏ

FRAGRANCIA DURADERA
FRAGRANCIA DURADOURA

INSTANT
CONDITIONER
FILTRO UVA/UVB

ELIXIR
FLEUR DE

MONOÏ

PROTECCION
FRENTE A LOS RAYOS DEL SOL
(UVA Y UVB)

PROTECCION SOS RAYOS DEL SOL
CON HUMIDIDAD Y BRISA

EAU DE TOILETTE

ELIXIR
FLEUR DE

MONOÏ

MASK 3 IN 1
FILTRO UVA/UVB

ELIXIR
FLEUR DE

MONOÏ

PROTEGE Y REPARA
CON/SIN ACLARADO
PROTECCAO E REPARACAO
COM/SEM ENRAGUAR

G
DE BAÑ

EL
FLE

MO

FRAGANC
FRAGRANC



ELIXIR FLEUR DE
MONOÏ



Hemen da berriro edizio mugatuko Monoï Elixir Fleur bilduma. Azala eta ilea zaintzen laguntzen duten bederatzi produktuz osatua, denak lurrin-usain exotiko berekoak.



Gorputzerako sorbetea egiteko, monoï-, makadamia- eta buriti-olioen konbinazioaren formula bat erabiltzen da.

Testura arin eta freskagarria du, eta azalak erraz xurgatzen du. Urteko hil beroenetan azala hidratatuta, leun eta lurrin-usainarekin edukitzen laguntzen du.

Bazenekien...?

Tiare-loreak (Tahiti uhartekoak, Polinesia Frantsesean) mazeratu eta koko-mamiaren olioarekin konbinatuta lortzen da monoïa. Osagai horiek konbinatuta, monoï bikaina lortzen da, ezaguna ilea eta azala elikatzen, suspertzen eta hidratatzen dituen onurengatik.

Gela, Body Spray Desodorantea eta Gorputzerako Sorbetea

Gelarekin, *body spray* desodorantearekin eta gorputzerako sorbetearekin, azala zaintzeaz gainera, garbi- eta fresko-sentsazioa izango duzu egun guztian zehar.





Eau de toilettea

Udako lurrin-usain exotikoa, tiare, ylang-ylang eta frangipani ukitukoa, banillaren eta tonka babaren sentsualitateaz lagundua.

Eman eskumuturretan, lepoan edo ilean, haren usain gozoa sentitzeko.



Crackling Body Moussea eta Gorputzerako Glitterra

Denboraldi honetan, azala hidratatzeko, leuntzeko eta argitzeko, bi produktu berri dakartza Fleur de Monoï Elixir bildumak.

- ✓ Gorputzerako *Crackling Mousse* eferbeszente eta freskagarria.
- ✓ Gorputzerako *Glitterra*. Eguzkitan ikusten diren urre-koloreko isla sotilak eta argitasuna ematen dizkio azalari.

Nola erabiltzen da Crackling Body Moussea?

Astindu ontzia gogoz, jarri aparra esku-ahurrean eta zabaldu azalean mugimendu zirkularrak eginez haren eragin bizigarri eta freskagarria areagotzeko.

Xanpua, 3 batean Maskara eta Instant Conditioner

Eguzkitan egon ostean, ilea garbitzen, hidratatzen eta zaintzen lagunduko dizute. Ile polit eta leuna lortuko duzu, berezko distira areagotuta. Kresaletik, klorotik eta eguzki-izpietatik babesten dute ilea, zuntz kapilarrak deshidratatzea eta apurtzea saihestuz.



Instant Conditioner

Ilea eguzkitik eta eskuilatzearen kalteetatik babesten duten eragile aktibo eta egokitzzaileak ditu.

Nola erabiltzen da?

Astindu eta zabaldu ile heze nahiz lehorrean, eguzkitan jarri aurretik edo eguzkitan zaudela. Ilea egokitzeko, babesteko eta korapiloak askatzeko balio du.



3 batean maskara Nola erabili

UVA/UVB-iragazkidun ile-maskarak hiru erabilera ditu, hidratazio-beharraren arabera.

- 1 Egokitzzaile gisa:** eman ile hezean, utzi minutu batez, eta garbitu urarekin.
- 2 Urez kentzeko maskara gisa:** eman ile hezean, utzi hiru minutuz, eta garbitu urarekin.
- 3 Ilean kendu gabe uzteko tratamendu gisa:** eman produktu pixka bat ile hezean, erdialdean hasi eta punta aldera, eta ile elikatuagoa eta leunagoa lortuko duzu.



Tratua
EGUZKIAREKIN

Prestatu, babestu eta suspertu. Oinarrizko hiru arau, aurtengo udan beltzaran-kolore polit, osasuntsu eta iraunkorra lortzeko.

Badakizu nola babestu azala eguzkitik?



Zaindu **egunero, urteko 365 egunetan**, bai eta neguko hilabeteetako egun hodeitsuetan ere. Azala zaintzeko eta zahartze goiztiarra saihesteko, eguzki-babesa da zure lagunik onena.



Eman babesa eguzkitan jarri baino **30 minutu** lehenago.



Errepikatu 2 ordutik behin, edo bainatu ondoren, izerditu ondoren edo toallarekin lehortu ondoren.



Babestu zerbait hartzera ateratzen zarenean eta aire zabalean kirola egin aurretik.



Aurpegirako Solar fluidoa, 50+ faktorekoa

Aliatu eguzkiarekin

Erabil ezazu zeure onerako, eta goza ezazu eguzki-izpi bakoitzaz, betiere azala babes egokiarekin zainduz eta babestuz.

→ **Aukeratu zuretzako egokia den eguzki-faktorea (FPS)**, azal-motaren arabera.

→ **Jarri arreta berezia eremu sentikorretan**, hala nola sudurrean, sorbaldeetan, garondoan eta oinbularretan.

→ **Mugatu eguzkitan zauden denbora**; saihestu 12:00etatik 16:00ak bitarteko tartea.

Erabili arropa eta osagarri egokiak

→ **babesteko**: kapela, pareoa, eguzkitako betaurrekoak...





**Solar esprai
gardena, 30
faktorekoa**



**Solar
krema, 30
faktorekoa**



**Solar
krema, 50+
faktorekoa**



**Solar krema,
50+ faktorekoa
bidaia-formatua**



Adi!

Produktu gutxiago emanez gero,
baliteke babesa nabarmen murriztea.

Uda amaigabea

Egun eguzkitsuetan, eraman zurekin monoïaren lurrin-usain exotikoa. Azala seguru eta modu naturalean beltzarantzen lagunduko dizu.



Bizkor beltzarantzeko Solar monoï-olioa, 15 faktorekoa eta ukitu lehorrekoa



Solar monoï-espraia, 15 faktorekoa

EGUZKIA HARTU OSTERAKO ZAINKETA

Eguzkia hartu ondoren, funtsezkoa da azalari aparteko mimoak ematea: hidratatu, baretu eta freskatzeko, azala leheneratzeko eta beltzaran-koloreari iraunarazteko.



After sun gela, aloe veraduna



After sun monoï-lozioa espraian



Beauty MOMENT

Ongi pasatzen duzuen bitartean azala hidratatzen
eta zaintzen duten aurpegi-maskarak.
Izugarri gustatuko zaizkizue!




Summer Mask

Sandiarekin eta glaziar-urarekin

- > Azalari berez leheneratzen laguntzen dio eguzkia hartu ondoren, eta beltzaran-kolore argitsua mantentzen laguntzen du.
- > Utzi eragiten 10 minutuz.
- > Are freskotasun handiagoa lortzeko, gorde maskara hozkailuan, eman baino 30 minutu lehenago.



NOLA ERABILI



1 Jarri maskara aurpegian, alde zuritik.



2 Berezi sare urdina, eta egokitu ondo maskara aurpegari.



3 Utzi eragiten 10 minutuz.



4 Kendu maskara, eta eman masajea azalak erabat xurgatu arte. Ez da beharrezkoa urez garbitzea.



Kids Mask


Aprobetxatu aukera, eta egin zeure buruari adarbakar-selfie dibertigarri bat!



- > 3 urtetik gorako haurrentzat.
- > Jatorri naturaleko osagaiekin formulatua. Azala zaintzen, leuntzen eta errespetatzen du dibertitzen diren bitartean.
- > Marrubi- eta ahabia-estraktuari esker, mundu magiko batera bidaiatuko dute, eta adarbakar bat balira bezalako distira izango dute.
- > Gainera, B5 probitamina eta erregaliz-estraktua ditu, azalaren hidratazioari eusteko lagungarriak.



NOLA ERABILI



1 Ziurtatu aurpegia ondo garbitu eta lehortu duzula.



2 Jarri maskara, eta egokitu ondo adarbakarra aurpegiari.



3 Gozatu 5-10 minutuz!



4 Kendu maskara, eta eman masaje leun bat aurpegian. Ez da beharrezkoa urez garbitzea.



MANIKURA

koloretsua





Gloss ukitua }

Ezagutu ezpainetarako distira berriak. Isla berezia dute. Aurtengo udan, jokatu ausardiaz eta konbina itzazu kolorez beteriko makillaje batekin, zure aurpegia argitzeko.

Testura krematsuko formula du, perla-efektukoa, distira ikusgarriko ezpainak lortzeko ezin hobea.

3 tonu, akabera leunekoak.

Ez dira batere likatsuak, eta banilla-usain gozoa dute.

Uda honetan, zure ezpainek ez dute beharko iragazkirik, inondik ere!

1. looka PERLA Gloss





2. looka
KORAL Gloss





3. looka
BIOLETA Gloss



Beauty List



1. LOOKA Perla Gloss



2. LOOKA Koral Gloss



3. LOOKA Bioleta Gloss



- 19 zenbakiko Metal Begi-itzala
- 01 eta 03 zenbakiko Metal Begi-itzalak




- 13 zenbakiko Metal itzala
- 07 zenbakiko Long Lasting itzala



- 04 zenbakiko Long Lasting itzala
- 06 zenbakiko Long Lasting itzala



- 05 zenbakiko Begi-profilatzailea
- 03 zenbakiko Blush argitsua



- Eyeliner marroia
- 03 zenbakiko Blush argitsua



- 08 zenbakiko Satin itzala
- 02 zenbakiko Blush argitsua



- Eguzki-hautsak
- 4D Volume Betile-maskara



- Eguzki-hautsak
- 4D Volume Betile-maskara



- Eguzki-hautsak
- 4D Volume Betile-maskara



- 01 zenbakiko Perla Gloss



- 02 zenbakiko Koral Gloss



- 03 zenbakiko Bioleta Gloss



3,2,1...

AGUR ILEARI!

Depilazioa

funtsezko urratsa da edertasun-errutinan, eta, nahiz eta batzuetan denbora eta ahalegina eskatzen duen, ez du zertan mingarria izan. Depilatzeko zenbait metodo daude: ilea sustraitik ateratzea, moztea, arrasean kentzea, dekoloratzea... Hautatu praktikoena, eta zeure beharretara ondoen egokitzen dena.

Gure depilazio-produktuen lerroa ezagutzeko prest?

DEPILAZIOA

ILEA ATERATZEA

Depilatzekeo bandak: etxean depilatzekeo irtenbide praktiko, eroso eta bizkorrena.

Denbora gutxi beharko duzu prest egoteko, eta azala leun eta distiratsu geratuko zaizu.

Argizari-bandak orkideo-estraktuarekin eginda daude.

Emitza profesionalak lortuko dituzu.

Depilatu osterako toallatxoak ere badakartza produktu honek, akabera perfektua lortzeko eta argizari-hondarrak kendu eta azala baretzeko.



Aurpegirako argizari-bandak



Hanketarako argizari-bandak

DEPILAZIOA

ILEA ATERATZEA



Argizari profesionala perlatan



Gorputzerako argizari beroa



Aurpegirako eta eremu txikietarako argizari beroa

Argizari beroak sustraitik ateratzen du ilea; hala, denbora gehiago igarotzen da berriro ilea atera arte.

NOLA ERABILI

- ✓ Jarraitu ontziko azalpenei.
- ✓ Hartu espatularekin intxaur baten tamainako argizari-kantitatea.
- ✓ Zabaldtu 1-2 mm-ko geruza bat, ilearen noranzkoan.
- ✓ Gogortzen denean, tiratu erabakitasunez ilearen aurkako noranzkoan, eta atera ileak sustraitik.
- ✓ Depilatu ondoren, hidratatu eta gorritasuna baretu.

- ✓ **Kikara-formatuko argizari beroa** (heldulekua du, hobeto heltzeko). Mikrouhin-labeen erabil daiteke, eta gorputzeko ilea kentzeko balio du.
- ✓ **Kazolatxo-formatuko argizaria**. Ez da egokia mikrouhin-laberako, eta gorputzeko eremu txikietarako erabiltzen da; esate baterako, iztondo, besape eta aurpegirako.
- ✓ **Argizaria perlatan**. Ez da egokia mikrouhin-laberako. Etxean argizari beroa erabiltzeko dugun kazolatxoa edo dagokion tresna elektrikoa betetzeko erabiltzen da.

DEPILATU OSTERAKO OLIO ATZERATZAILA



- Argizari-hondarrak kentzeaz gainera, azala hidratatzen, elikatzen eta lasaitzen du, azala koipeztu gabe, ukitu lehorreko formulari esker.
- Baditu zenbait aktibo (galorraz-olioa, almendra-olioa eta E bitamina), ilearen hazkundera atzeratzen laguntzen dutenak, depilatu eta gutxienez 5 egunez jarraian erabiliz gero.



DEPILAZIOA

ILEA ARRASEAN MOZTEA

Depilazio-kremak eta aitzurra ilea mozten duten depilazio-metodoak dira. Metodo praktiko eta minik gabekoak dira, eta emaitzak gutxiago irauten du argizariarekin baino.

NOLA ERABILI DEPILAZIO-KREMA

- ✓ Egiaztatu beti azalaren egoera, aldeaz aurretik proba bat eginda.
- ✓ Estali eremua kremarekin eta utzi eragiten (depilatu beharreko eremuaren, ile-kopuruaren eta ilearen lodieraren arabera da aplikazio-denbora).
- ✓ Kendu produktua ur askorekin.



Krema, espatula eta depilatu osterako gela ditu. Utzi eragiten gutxienez 3 minutuz eta gehienez 5 minutuz.

Azal sentikorreko aurpegietarako depilazio-krema

Azal normaleko gizonentzako depilazio-krema



Eskuzorro bat dakar. Ez utzi 10 minutu baino gehiago eragiten.

Behin krema emandakoan, itxaron gutxienez 2 minutu dutxan sartu aurretik.

Bere lana egiten duen artean, ohiko dutxa-errutinarekin jarraitu dezakezu, krema zuzenean urarekin busti gabe gutxienez beste 3 minutuz. Krema erraz kentzen da eskuzorroarekin eta ur epel ugarirekin.

BODY 2 DEPILATZEKO AITZURRA

- ✓ Gomazko helduleku irristagaitza eta kuxina ditu, ilea errazago eta modu seguruagoan arrasatzeko.
- ✓ E bitamina, aloe vera eta argan-olioa dituen banda lubrifikatzailea du, hobeto labaintzeko azalaren gainean eta depilazio leunagoa lortzeko.
- ✓ 2 xaflako buru baskulagarria du, ilea doitasunez kentzen laguntzen duena eta geometria irekikoa, errazago garbitzeko.



ILEA DEKOLORATZEA

Ilea dekolortzea aukera onena da gorputzeko ilea disimulatzen. Crema dekolortzailea bizkorra eta eraginkorra da, eta ilea ia ikusezin uzten du.

Formulan dituen propietate babesleko osagaiak esker -besteak beste, almendra gozoaren olio eta kamamila-, dekolortzaioak gehiago errespetatzen du azala.

Erabiltzeko erraza da, kolorea aldatzen zaiolako nahasketa prest dagoela adierazteko.



2 Eman nahastea azal garbi eta lehorren gainean espatularekin. Saiatu ilea ongi estaltzen.



3 Utzi eragiten 5 minutuz (aurpegian) edo 7 minutuz (gorputzean).

NOLA ERABILI

1 Nahasi erretiluan oinarri dekolortzailea eta crema aktibatzailea, kantitate berean, malba-koloreko nahaste homogeneo bat lortu arte. Dekoloratu beharreko gainazalaren arabera, kantitate gehiago edo gutxiago beharko duzu.



4

Kendu nahastea espatularekin, garbitu ur ugarirekin, eta lehortu igurtzi gabe.



Aurpegirako eta gorputzerako crema dekolortzailea. Edukia: crema dekolortzailea, crema aktibatzailea, nahasketa egiteko erretilua eta espatula.





Urraduren aurkako *sticka* OINETARAKO

Oinetakoek eragindako urradura eta babak prebenitu eta oinak babesten ditu. Pelikula babesle ikusezin bat sortzen du, labaintzen ez dena. Berehala murrizten du urratzea.





Haurrentzako Solar babesa, **50+ faktoreko babes oso handia**

-  Eman produktu-kantitate on bat, eta ongi zabaldu.
-  Arreta berezia jarri eremu sentikorrei; esate baterako, sudur, oinbular eta belarriei.

